

EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGE-PROIEKTUAREN BALORAZIOA

*Errealitate hau betikotzen
utzi behar al diegu?*

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGE-PROIEKTUA. ELA-REN BALORAZIOA

AURKIBIDEA

	<u>Orr.</u>
1. Sarrera	5
2. Lege Proiektua aurkezten den uneko testuingurua.....	5
3. Lege Proiektuaren ezaugarriak	7
3.1. Estatuarekiko erabateko menpekotasuna (EBEParen 2.0 bertsioa)	7
3.2. Administrazioaren nahierakotasuna vs. zerbitzu publiko independentea	7
3.2.1. Zuzendaritzako publikoa, kontrol politikorako ustezko teknikaria	7
3.2.2. Lan-harremanak banan-banako eran antolatzea.....	7
3.2.3. Behin-behinekotasuna, mugarik gabe.....	8
3.2.4. Lansari aldakorrak, men egitearen berme gisa	8
3.3. Lan-erreformaren helburu berbera administrazio publikorako: prekarietate eta pribatizazio gehiago	8
3.3.1. Pribatizazio gehiago.....	8
3.3.2. Prekarietate handiagoa	8
3.4. Administrazio zentralizatua, piramidala eta gizarteari bizkar emana	8
3.5. EAEko sektore publikoa osatzen duten atal batzuk erregulatu gabe uztea....	9
3.6. Negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe	9
3.7. Euskara: atzerapausoak aurrerapauso gutxiren ostean	9
4. ELAren proposamenak	9
5. I. eranskina: ELAren boto partikularra Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan ...	12



1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzak erabaki du Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea aldatzen berriro saiatzea.

Gogoratu beharrekoa da Eusko Jaurlaritzak, oraingo lehendakari Urkulluren beraren zuzendaritzapean, beste lege-proiektu bat aurkeztu zuela aurreko legealdian (2012-2016), baina azkenean legebiltzarreko izapidetzetik erretiratu behar izan zuela, onetsi ahal izateko sostengu nahikorik lortu ezinda. Eusko Jaurlaritzak orduko proiektu hura eraman zuen legebiltzarrerera, mahai orokorreko sindikatu guztien gaitzespena jaso arren.

Legealdi honetan aurkeztu duen lege-proiektuan, aurrekoarekiko aurrerapausorik ez ekartzeaz gain, zenbait alderditan **atzerapauso nabariak** ageri dira. Esate baterako, sektore publikoko **langileei kode etikoa** aplikatu ahal izatea. Gainera, aurreko proiektuan gertatu zen bezala, oraingoan ere **ez dute sindikatu bakar baten sostengua lortu**. ELAk boto partikular bat eman zuen Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan, bere desadostasuna eta gaitzespena agertzeko; eta txosten honi eranskin moduan atxiki zaio, interesgarria delakoan.

ELAren ustez, lege-aurreproiektu honen edukia oso larritzat jo dezakegu, **uko egiten baitio euskal lege bat garatzeari** estatuaren enplegatu publikoaren legea (Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua) ezartzearen mesedetan. Horren ondorioz herri-enplegatuen lan-baldintzak narriatuko dira, eta zerbitzuen **izaera publikoa kolokan** geratuko da.

Aurreproiektu horren bidez **agintekeria** eta lan-harreman kolektiboen **indibidualizazioa** nagusituko dira. Aldi berean, herritarrentzako oinarriko bermeak mugatu nahi dituzte, langile publikoen mugiezintasuna eta independentzia, besteak beste.

Orain aurkeztu diguten lege-aurreproiektuak EAEko administrazio publikoetako eta haien menpeko sozietateetako **langileen lan-baldintzak arautzen** ditu. Lege-egitasmo hau, halaber, aplikatuko zaie partzialki, araudi propioetan jasota ez dauden gaietara: Ertzaintzari, Lurralde Historikoetako Batzar nagusietako pertsonalari, Eusko Legebiltzarreko funtzionarioei, unibertsitateko irakasle funtzionarioei eta EHuko lan-legepeko irakasleei, eta Justizia Administrazioako funtzionarioei, eta subsidiarioki toki-eta foru-administrazioetako pertsonalari.

Gogoratu beharrekoa da, **EBEPen onespena Espainiako Gobernuaren eta CCOOen, UGTren eta CSI-Fen arteko adostasunaren bidez** egin zela. Orduan ere, ELAk legea kritikatu zuen EAEren eskumenen esparruan sartzen zelako, "administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak eta funtzionarioen estatutu-araubidea ezartzea" baino haratago zihoala, eta interes pribatuen mesederako administrazio bat, lan-eskubiderik gabea, sortzen zuela.

Sarrera honetan, **ELAk ezadostasuna** adierazi nahi du aurreproiektu honekiko eta egungo administrazioa **antolatzeke ereduarekiko**. ELAk gogoan duen administrazio publikoa honako hau litzateke: bertokoa, euskalduna, independentea, gizarte-kontrolaren menpekoa, eta zerbitzua eman behar dien hiru lurraldeetako herritarren beharrez bertatik bertara erantzungo diena.

Parte hartzeari irekitako Administrazioa, gizartetik hurbila, auto-antolamendurako gaitasun handikoa, lan-baldintza duinak dituen, langileen mugikortasunik ezaren eta independentziaren printzipioak oinarri dituen, eta negoziazio kolektiboa errespetatzen duena. Administrazio horrek manipulazio alderdikoiak edo erabaki baztertzailak galarazi behar ditu, eta administrazioarako sarbide-prozedura hautagaien gaitasunean eta berdintasunezko baldintzetan oinarritu behar da.

2. Lege Proiektua aurkeztu den uneko testuingurua

Krisiaren aitzakian aberastasuna modu bidegabeagoan banatzen da, eta zerbitzu publikoetan egin beharreko inbertsioetan murrizketak eta mugak jarri dira.

Azken urteotan, krisia dela bide, aberastasuna izugarri aldatu da eskuz. Aberastasunaren banaketa lehen bidegabea bazen, krisiaren urteetan are bidegabeagoa bilakatu da.

Eusko Jaurlaritzak, sortzen dugun aberastasunarekiko (BPGarekiko) aurrekontuetan inbertsio publikora bideratzen duen dirua, nabarmen jaitsi da azken urte hauetan, nahiz eta egun, krisiaren hasieran sortzen zena baino aberastasun handiagoa sortu.

EAE inbertsio publikoaren pisua gutxituz doa. Adibidez, hezkuntzan egiten den inbertsioa BPGaren %4,3koa zen 2009an, eta %3,5koa izatera jaitsi da 2018an. Eta osasunean, BPGaren %7,8koa izatetik %5,2koa izatera.

Hala ere, arduradun politikoek gero eta diru publiko gehiago, eta aurrekontuaren portzentaje gero eta handiagoa, bideratzen dute **zor publikoa ordaintzera**. Zor publiko hori izugarri handitu zen, krisian zehar **bankuak erreskatatzeko** gastatu zen diru publikoagatik, oraingo Eusko Jaurlaritzan dagoen alderdi politikoaren sostenguaz. Aldi berean, inbertsioak murriztu ziren, ikusi berri dugun bezala. Izan ere, **Eusko Jaurlaritzak 84 milioi euro bideratzen zuen zor publikoa ordaintzera 2009an, eta 2018an 1.347 milioi; hau da, 1.263 milioi gehiago** (Eusko Jaurlaritzak, zor publikoa ordaintzeko, aurrekontuaren %0,8 bideratzetik %11,9 bideratzera aldatu da).

Murrizketa-politiken ondorioak zerbitzu publikoetan:

Neurri horien bitartez **egundoko eraso egin diete zerbitzu publikoei**. Milaka lanpostu suntsitu dira, lan-kargak handitu, urte luzetako borroka lorturiko eskubide eta lan-baldintzak galdu, behinbehinekotasuna eta prekarietatea izugarri handitu, milaka lan eta zerbitzu azpikontratatu eta pribatizatu, eta abar.

2010. urteaz geroztik burututako erasoek eta ezarritako murrizketek oso egoera kezagarrian utzi dituzte zerbitzu publikoak:

- **EAEko administrazioek 4 lanpostutik 3 azpikontratatu dituzte**. 90.000 baino gehiago dira EAEko administrazio publikoetan zerbitzu publikoetan diharduten langile azpikontratuak. Zenbait udaletan pertsonal azpikontratatu handiagoa da kopuruz, zuzenean kontrataturikoa baino. Azken hamarkadetan, arduradun politikoek administrazio paralelo bat sortu dute, interes pribatuen mesedetan. Hori dela-eta, biztanleria aktiboarekiko enplegu publikoaren proportzioa, oso baxua da Hego Euskal Herrian.

Europar biztanleria aktiboaren %20 inguruk lan egiten du sektore publikoan batz bestea, aldiz, Euskal Herrian ez da %12ra iristen.

- 2010. urtetik hona **21.400 lanpostu baino gehiago suntsitu** dira (Eustaten datuen arabera). Gainera, **euskal sektore publikoko lehen Lan Erregulazioko Espedientea** burutu da, **EITBn**, non 30 lanpostu suntsitu diren, Administrazio Kontseiluaren oniritziarekin.
- Euskal administrazio publikoko behin-behinekotasuna ia-ia %35ekoa da. Zenbait esparrutan %40 ere gainditu da luze. Hori horrela, administrazioak berebiziko aukera izan du kaleratze ikusezinak egiteko, murrizketa-garaian. Gainera, zenbait sektoretako behin-behinekotasuna eta batez besteko adina kontuan hartuz, zerbitzu batzuk pribatizatze bidean jarriak izan dira.
 - Osakidetzan behin-behinekotasuna %38ra heldu da (15.000 lanpostu).
 - Irakaskuntza publikoan, %30 eta %65 bitartean dago, sektorearen arabera.
 - EAEko Administrazio Autonomoan: %35 (3.000 lanpostu baino gehiago).
 - EAEko Justizian: %30 (500etik gora behin-behineko lanpostu).
 - Udal-eta foru-administrazioetan: %35 (10.000 lanpostu inguru behin-behinekoak).
 - EITBn %30 baino gehiago.
- **2012ko uztailaz geroztik lanaldiak luzatu dira**, norberaren aukerako egunak gutxitu (moskosoak eta zahar-egunak), eta abenduko aparteko ordainsaria jaitsi. Espainiako Gobernuak eskumen batzuk erretiratu dizkie euskal administrazioei, eta erabakitze gaitasuna Espainiako

Estatuan zentralizatzen saiatu da. Horren aurrean euskal administrazioak ez dira babestu, estatutik agindutako neurri guztiak onartu dituzte, eta Euskal Herriko langileei ezarri.

- **Eroste-ahalmenaren galera areagotuz joan da.** 2010eko %5eko soldata-jaitsieraz gain, izozteurteak eta KPlaz azpiko igoerak gehitu behar dira. Hori dela-eta, 2010az geroztik erosteahalmenaren %15eko edo gehiagoko galera izan dute sektore gehienetan.
- Eta horrekin batera, ordezkapenik ez egitea (edo atzerapenez egitea), bajak zigortzea, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei (BGAE) ekarpenik ez egitea (Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak izan arren), lan-kargak eta ratioak handitzea, erretiro-primak kentzea eta abar. Murrizketa horiek guztiak ez dira oraindik osotasunean lehengoratu.

3. Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen Lege Proiektuaren ezaugarriak

3.1. Estatuarekiko erabateko menpekotasuna

Eusko Jaurlaritzak uko egin dio legegintza-ahalmena garatzeari, eta Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua eta Gernikako Estatuaren 10.2 eta 10.4 artikulua modu murrizgarrian interpretatu ditu. Lege-egitasmo hau EBEPen kopia-itsatsi bat baino ez da.

Estatuko oinarritzko arauetik menpekotasuna erabatekoa da alde guztietatik. Ez dago borondatearik arauteria berezko bat garatzeko, alegia, gure herrialdeko errealitateari eta beharrezkoen erantzunaren arauteria garatzeko. Ez da garatuko Lan Harremanetarako eta Gizarte Babeserako Euskal Esparrua.

Labur esanda, Zioen Adierazpenean **“euskal sektore publikoa” laudatu arren, lege-aurre-proiektu horrek desagerraraziko du**, eta estatuko administrazioa atal bihurtuko.

3.2. Arbitrariotasun politikoa vs. zerbitzu publiko independentea

Enplegatutako publikoen mugiezintasuna eta independentzia, Administrazioaren jardunetik arbitrariotasuna ezabatzeko tresna gisa ezarriak dira, eta berme dira gizartearentzat. Bada, aurre-proiektuan printzipio horren ordez, botere osoa aitortzen zaio kasuan kasuko gobernuari.

Eusko Jaurlaritzak "tresnak" sortu ditu, independentziaren berme horiek kentzeko. Ildo horretatik ulertu behar dugu, hain zuzen: zuzendaritza publikoaren figura berria, irizpide subjektiboaren arabera, arlo funtzionalen finkapena, derrigorrezko mugikortasunak... "Tresna" horiek guztiek morrontza eta segiziozalekeria politikoa sustatzen dituzte, eta baita politikarien presio-ahalmena herrilangileekiko ere.

3.2.1. Zuzendaritzako publikoa, kontrol politikorako ustezko teknikaria

Zuzendaritzako publikoaren figura sortuko da. Politikarien helburuak arlo bakoitzean gauzatzeko arduradunak izango dira. Administrazioak arbitrariotasunez hautatuko ditu, baita enplegatutako publikoak izan gabe ere.

Figura hori funtsezkoa izango da **enplegatutako publikoak baldintzatzeko**. Eginkizun ugari izango dute, besteak beste, txostenak prestatzea xede hauei begira: langileen soldata erabakitzea, diziplinaneurriak hartzea, mugikortasun geografiko eta funtzionalak erabakitzea eta lanpostuak amortizatzea.

3.2.2. Lanpostuen indibidualizazioa

Legeak taxutzen duen lan-sistema arlo funtzionalan sailkatzen da, eta **zuzendaritzako publikoak eginkizunak ezarriko dizkie enplegatuei banan-banan**, kontrol sindikalik gabe. Gainera, lansariaren zati bat benetan burutzen diren eginkizunen menpean geratuko da. **Sistema arbitrarioa** da, beraz, eta babes gabezia sortzen du.

3.2.3. BEHIN-BEHINEKOTASUNA, MUGARIK GABE

Bitarteko langilearen figuraren aldeko apustua egin da, **egonkortze-formularik ez** baita agertzen administrazioak arrazoizko epe baten barruan postu horiek eskaintza publikoan ateratzen ez dituen kasuetarako. Ez dago formularik, administrazioak behartzen dituenik egitura-postu huts guztiak eskaintza publikora ateratzera; bitarteko postuen egoerak denbora-mugarik gabe iraungo du.

3.2.4. Lansari aldakorra, men egitearen bermea

Oinarrizko sistema eta sistema osagarria mantentzen dira, baina **kopuruak gutxiagotzeko aurreikuspena** dago lanbide-karreraren osagarri berri baten truk, eta osagarri berri hori egindako lanaren ebaluazioaren baitan egongo da, zuzendaritzakoen irizpide subjektiboaren menpean. Bitarteko langileek ez dute osagarri hori izango. Lanbide-garapena ezarri den tokietan (Osakidetza) edo ezartzea proposatu den tokietan (Ertzaintza) morrontza sustatu da, eta baita ikastaro balioezinen erosketa ere. Tarteko txostenak dira beharrezkoak, irizpide guztiz objektiboaren arabera eginak, lana balioesteko, eta adiskidekeria eta menpekotasuna baztertzeko. Antolatzen diren ikastaroen edukia eta aprobetxamendua kontrolatu behar dira.

3.3. Lan-erreforma administrazio publikora ekartzea. Prekarietate eta pribatizazio gehiago

3.3.1. Pribatizazio gehiago. Lege-aurreproiektuak aipatu ere ez ditu egiten funtzio publikoan zenbat enplegatu publiko gutxienez aritu behar diren. Zerbitzuak kanpora ateratzeko edo pribatizatzeke mugak ere ez dira zehaztu. Hori horrela, badirudi egungo enplegu publikoa arintzeko asmoa dagoela, lanpostuak amortizatuko direla, eta gero eta zerbitzu publiko gehiago sektore pribatura bideratuko direla.

3.3.2. Prekarietate handiagoa. Lan-erreformaren espiritua jaso da, funtzionarioentzat ere nahitaezko lan-utzialdiak, lanaldi-murrizketak, soldata-murrizketak., mugikortasun funtzionala eta geografikoaren aukera jasoz.

Behin-behinekotasuna gure administrazio publikoen arazo nagusietako bat izan arren, *aldi baterako kontratazioari dagokionez* aurre-proiektuan 2007ko EBEPen eta 89ko EFPLn zeuden gabeziak errepikatu dira: gehiegizko aldi baterako kontratazioari mugarik ez, egiturazkoak diren lanpostuak LPZn jasotzera behartzen duen neurririk ez, langile finkorekin betetzeko beharrik ez, eginbehar horiek betetzen ez dituzten administrazioentzako zigorrik ez... Bestela esanda, prekarietate-tasa ikaragarriak mantenduko dira (gaur egun behin-behinekotasunaren tasa %30ekoa da, bataz beste).

Eta *enplegua egonkortzeari* dagokionez, 19 eta 20 Xedapen Iragankorrak daude, baina horiek, besterik gabe, ez dira berme nahikoa egiturazko postu guztiak pertsonal finkoz betetzeko, eta gainera langile eta sektore asko beren esparrutik kanpo uztea ahalbidetzen dute. Izatez, atzera-pausoa dira, aurreko legeetan ezarritakoaren aldean (1989ko Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 3 eta 4 Xedapen Iragankorrak eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 4 Xedapen Iragankorra).

3.4. Administrazio zentralizatua, piramidala eta gizarteari bizkar emana

Lege-aurreproiektuak lehendik zeuden **parte hartzeko gutxieneko tresnak ezabatu ditu**. Ez du inola ere errazten partaidetza soziala edo sindikala administrazio publikoaren kudeaketan.

Lege-aurreproiektu horrek ezarriko duen eredia, **administrazio zentralizatu eta botere politikoaren menpekoa** izango da. Eta eredia alderantzizkoa behar zuen: deszentralizazio-formulak asmatzea, zerbitzuak herritarrengana hurbiltzeko, eta zerbitzu publikoetako langileen auto-antolatzeke gaitasuna sustatzeko.

3.5. EAEko sektore publikoa osatzen duten esparru guztiak ez ditu erregulatu

Lege-aurreproiektuak ez du bereganatu EAEko sektore publikoa osatzen duen pertsonal osoa. Atal zabalak kanpo geratu dira: Justizia, Ertzaintza, lurralde historikoetako batzar nagusietako langileak, Eusko Legebiltzarreko funtzionarioak, EHUko irakasle funtzionarioak, eta lan-legepeko irakasleak. Eta, gainera, ez da formularik bilatu EAEn diharduen Estatuko administrazioeko pertsonala kudeatzeko.

3.6. Negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe

Administrazioek **agintekeriaren alde** egin dute apustu, ez baitute onartu sindikatuen zeregina, ez eta langileen negoziazio kolektiboko eskubidea ere.

Aurreproiektuan taxutu den negoziazio kolektiborako prozedura formala da soilik, aldi berean, **akordioak ez betetzeko** baliabideak ere aurreikusten baitira.

Administrazioek lan-baldintzak alde bakarrez erabakitzeko ahalmena eurentzat gordetzen dute, eta hori, izatez, herri-langileei **negoziazio kolektiborako eskubidea ukatzea** da.

Madrildik agindutako oinarrizko araei men egiten zaie garbi. Horrela, oinarrizko gaien “negoziazioa” (soldata eta beste), hirugarren batzuen eskuetan utziko da. Madrilek Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenetan eskua sartzea onartzen dute zirkinik egin barik.

Akordioak benetan beteko direlako bermerik ez dago; eta ordezkaritza-gehiengoan errespeturik ez da ageri. Akordioen balioa oso ahuldurik geratzen da, eta edozein ordezkaritza-gutxiengorekin hitzartu ahal izango dira.

Gobernuaren edo legebiltzarren erabakiek baliogabetu ditzakete negoziazio kolektiboaren akordioak, edo azken urteotan egin den bezala, soldata-murrizketak ezarri.

Mahai atomiko bat sortzea proposatu dute (mahai orokorra + udalak + aldundiak), negoziazioa al bait gehien langileengandik urruntzeko, eta negoziazioarekiko loturak hausteko, kontrol politiko handiagoa bilatzeko, eta herri-langileen lan-baldintzak behetik berdintzeko. Bitarteko langileek, funtzionarioek baino lansari txikiagoak izatea ahalbidetzen da.

Aparteko ordainsariak lansari osagarriak izango dira (oinarrizko soldata eta hirurtekoak izan ezik): errazagoa izango da, beraz, ordainsariok ezabatzea. Baimenak eta lizentziak ez dira zehaztu, eta utzi dira enpleguaren oinarrizko legerian, legeetan, arautegietan eta hitzarmenetan jasota dagoenaren menpe, baina bermerik ez dute lege honetan.

3.7. Euskara, atzerapausoak aurrerapauso gutxiren ostean

EAEko administrazioak sortu zirela 35 urte baino gehiago igaro eta gero, administrazioak benetan euskalduntzetik urrun gaude, eta beraz ezin zaio bermatu herritarrari zerbitzu publikoa nahi duen hizkuntza ofizialean jasotzea kasu guztietan.

Aurreproiektu horretan ez da apustu sendorik egiten euskararen erabileraren normalizazioaren alde. Euskarak soilik bide begetatibotik aurrera egiten uztea, hau da, langile gazteak sartzearen bidetik, onartezina da. Euskalduntze prozesu sendo baten eza nabarmena da. Hori horrela ezin zaie herritarrei euskarazko arreta bermatu, eta ezin da bultzatu euskararen normalizazioa eta erabilera.

4. ELAren proposamenak

Sarreran aipatu den bezala, ELAk gogoko duen administrazio bertakoa, euskalduna, independentea, gizarteak zaundua, eta EAEko hiru lurraldeetako herritarren beharrian sozialei erantzuteko prest dagoena.

4.1. Administrazio parte hartzailea, deszentralizatua eta herritarren zerbitzura

ELAn gogoko dugun administrazioa herritarren parte hartzeari irekita dagoena da. Gizartearen eta langileen arteko harreman horri esker, batetik, kalitatezko zerbitzua emango litzateke, gizartearen beharrez eta eskariei egokitu, eta bestetik, gizarteak kontrola izango luke administrazioaren jardueraren gainean.

ELAren aburuz, herritarren zerbitzura dagoen administrazio batek parte hartze sozialerako bideak eskaini behar ditu, zerbitzuak berak ebaluatzeko (eta haiek eskaintzeko modua), eta baita eraginpeko herritarrek berek erabakitzeko aukera izateko.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat administrazioaren deszentralizazioa da. Horrela, administrazioa hobeto moldatuko da zerbitzua eskatzen duenaren beharrez zehazterara. Eredu zentralizatu batean, ordea, zerbitzuaren egitura urrunagoa da, eta kontrol politikoa nagusitzen da zerbitzuaren beraren gainean.

Gogoko dugun “euskal sektore publikoak” eragotziko luke zerbitzu publikoak arian-arian pribatizatzea, eta pribatizatuak izan direnak berreskuratzea izango luke helburu. Administrazioak zuzenean eskainiko litzieke herritarrei oinarrizko zerbitzuak, herri-onura diru-etekinen aurretik doala ziurtatuz.

4.2. EAEko esparru publiko guztiak barne hartzen dituen Legea

ELAren irudiko, legeak EAEko sektore publikoa osatzen duten esparru guztiak barne hartu behar ditu, salbuespenik gabe, baita egun Estatuko esparruan daudenak ere.

4.3. Kalitatezko zerbitzua emateko lan-baldintza duinak, mugiezintasunaren eta independentziaren printzipioetan oinarrituak

ELAren ustez, legean lan-baldintza duinak ziurtatu behar dira, herri-langileen mugiezintasun eta independentziaren printzipioak oinarri hartuz. Mugiezintasunak eta independentziak galaraziko dute bai manipulazio alderdikoia, bai eroste-ahalmenaren arabera erabaki diskriminatzaileak hartzea. Alde horretatik mugiezintasuna herritarren eskubidea da, lan-eskubidea baino lehen. Mugiezintasuna eta independentzia gorde beharreko ondasunak dira.

4.4. Negoziazio kolektiborako benetako eskubidea

Nahi dugun enplegu publikoaren legeak negoziazio kolektiborako eskubidea onartu behar du zintzo. Negoziazio kolektiboan, aldeak eta haietako bakoitzaren legezko ordezkariak errespetatu behar dira, hitzarturikoa betetzea printzipio hautsezina izan behar da, kanpoko esku-sartzerik onartu gabe, alde bakarreko erabakiak ezarri gabe, eta joko-arau demokratikoak oinarri. Alde biak berdin direla egiten den negoziazio kolektiborako eskubidea.

4.5. Enplegua

Gure gogoia, funtzio publikoan herri-langileek jardutea da, eta helburu hori legean islatu behar da. Langile publikoen proportzioa EBeko batz bestekora eramango gaituen lege bat nahi dugu.

Zerbitzu gehiago pribatizatzea eragotziko duen legea behar dugu; eta azpikontratatu diren zerbitzuak arlo publikora itzularaziko dituen, egungo langile azpikontratatu lanpostua bermatuz, eta lehengoratzeko prozesu horrek dirauen artean, langile horien lan-baldintzak subrogatuz, erreferentziako herri-langileen lan-baldintzekin homologatuz eta homogeneizatuz.

Lanpostu hutsak betetzea, ordezkariak eta behin-behineko langileen egonkortasuna aintzat hartuko dituen lege bat.

Guk nahi dugun legean, **administrazioarako sarbidea gaitasunean eta berdintasunean oinarritu** behar da, eta egiturazko lanpostu guztiak langile finkoekin bete behar dira; egin behar hori betezen ez duten administrazioei zigorra ezarri behar zaie. Pertsonal independentea eta kualifikatua behar da jardunean.

Hautaketa-prozesuak guztiz gardenak izan behar dira. Horretarako, epaimahaietako eztabaidak irekiak izan behar dira, eta prozesuan parte hartzen dutenek espediente eskueran izan behar dute uneoro, eta baita gainerako hautagaien merezimenduak eta puntuazioak egiaztatzeko modua ere.

Egungo sarbide-sistemak bitarteko langileen egoera gehiegi luzatzea eragiten du (bitartekoen tasa %30etik gora gaur egun), eta gero eta kudeaketa zailagoa duten egoerak eragiten dira. Lege berriak irtenbide bat eman behako lieke gaur ditugun egoera gatazkatsuei, eta antzeko egoerak berriro gertatzea eragotzi.

4.6. Euskara

ELAren iritziz, lege berriari aurrerapauso nabarmena eman beharko litzateke euskararen erabilera sustatzeko bidean, benetan erabilia izan dadin, gure hizkuntza aurrera ateratzen eta berreskuratzen lagunduko duen tresna gisa.

Legeak benetako tresnak sortu beharko lituzke, administrazioa egitan eta epe laburrean euskalduntzeko, horrela herritarrekin eta herri-langileen artean euskara komunikazio-tresna eraginkor bilaka dadin.

Horregatik, lege berriari jaso behar da administrazioari sartu nahi duten guztien euskarazko egiazko gaitasuna aztertu behar dela. Hau da, lanpostu guztietan euskararen ezaguera pasiboa ziurtatu behar da gutxienez. Egungo behin-behinekotasun tasak ikusita, erakundeek euskararen ezagutza ziurtatzeko tresnak eskaini behar dizkiete bitarteko langileei, euskalduntzeko benetako aukerak izan ditzaten (laguntzak, formazioa, liberazioak...).

Gorago azaldutako guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen Enplegu Publikoaren Lege-Proiektuarekiko dugun desadostasuna berresten dugu. Lege egitasmo hori errotik aldatzea eta egiazko negoziazioa zabaltzea eskatzen dugu, ELAren 200dik gora alegazioak oinarri. Gure helburua funtzio publikoaren sistema propio bat eratzea da, gure gizartearen beharrianetara egokitua. Gardentasunez eta inposaketarik gabe.

5. I. eranskina. ELAren boto partikularra Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan

EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN KONTSEILUARI

IGOR EIZAGIRRE ALZA, 44551454V NAN zenbakidunak, ELA sindikatuko Gizalan federazioko idazkari nagusi denak, ELA sindikatuaren izenean, ondorengoa **DIO**:

Aurretiazkoa.—Lehenik eta behin salatu nahi dugu Lege-aurreproiektuari ELA sindikatutik bidalitako alegazioei Administrazioaren partetik inolako erantzunik ez dugula jaso.

Bigarrenik, salatu nahi dugu, gaur 2018ko irailaren 25 an, Euskal Funtzio Publikoaren kontseiluko saioan aztertzen ari garen Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu Publikoaren lege aurreproiektuko testu berria orain dela astebete exkax ezagutu dugula.

Administrazioaren bi erabaki hauek oso argi erakusten dute, Administrazioak langileriaren ordezkariari duten errespetu eza.

Lehengoa.—Gaur 2018 ko irailak 25, Euskal Funtzio Publikoaren kontseiluko saioa izan dugu, bertan Eusko Jaularitzak Legebiltzarrean aurkeztu nahi duen Euski Enplegu Publikoaren Lege proiektuaren inguruko eztabaida izan dugularik. Aldi berean, lege proiektu honen inguruko bozketa gauzatu da, **kontseiluan instituzioen ordezkari direnen aldeko bozkarekin eta langileen ordezkari garenon kontrako bozkarekin** lege proiektua aurrera atera delarik.

Bigarrena.—Euskal Funtzio Publikoaren Kontseiluko antolakuntza eta funtzionamendua, 2000 urteko azaroak 13ko aginduan arautzen dira; agindu honetako 12.b artikuluan oinarrituz, ELA sindikatuak gaurko saioan kontseiluaren gehiengoak hartutako lege proiektu honen aldeko erabakiaren aurrean **BOZKA PARTIKULARRA** aurkeztu nahi du.

Hirugarrena.—Aurrez aipatutako bozka partikularra emateko arrazoi esanguratsuenak ondorengo hauek dira:

- Lege proiektu honek **Estatuko legedia bere egiten du. Ez da Euskal erabakitze esparrua babesten** eta ez da Euskal autonomi erkidegoan lan egiten duten langile publiko guztientzat arautzen.
- **Negoiazio Kolektiborako eskubidea ukatzen du**, unean uneko administrazioak alde bakarez erabakitzen dituelarik lan baldintzak eta ez da bermatzen ez gehiengoaren errespetua ez eta sinatutako akordioaren betetzea ere.
- Langile, sindikatu eta gizarteak orohar Administrazioaren kudeaketan **parte hartu ahal izateko tresnak minimoak dira**, eta botere guztia uneko gobernuko agintari politikoen zein izendapen askeko karguen esku uzten du (zuzendari profesionala, egikaritzaren ebaluazioa, promozio horizontala...).
- **Lan erreforma:** uneko administrazioak lan erreformak barneratzen dituen neurriak aplikatzeko tresnak ezartzen ditu (mugikortasun funtzionala, geografikoa...).
- **Enplegua:** dauden pribatizazio eta azpikontratazio maila itzelak bere horretan finkatu eta areagotzeko atea irekitzen du. Ez ditu azpikontratutako langileen baldintzak arautzen ez eta subrogazio eskubidea bermatzen ere.
- **Behin behinekotasuna:** Ez dio behin behinekotasunari inolako mugarik jartzen, hutsik dauden lanpostuak (bakanteak) langile finkoekin betetzeko inolako derrigortasunik ez du ezartzen; Ez du inolako indemnizaziorik aurrakusten lanpostua kontsolidatzen ez duten behin behineko langileentzat; eta azkenik, behin behineko langileek lanpostua kontsolidatzeko jasotzen duen proposamena ez du helburu hori bermatzen.

Hau guztia dela eta, ELA sindikatuak gaurko Euskal Funtzio Publikoaren Kontseiluko bileran bozka partikular hau aurkeztu du dagokion lekuan dagozkion eragiñak izan ditzan.

Gasteizen 2018ko irailak 25 an